


Astekaria



elgoi

Datorren urtean txapeldun!



- ▶ MANIKURAK
- ▶ DEPILAZIOAK
- ▶ AURPEGI GARBIKETAK
- ▶ SOLARIUM-A

- ▶ PORTZELANAZKO ATZAZALAK
- ▶ GORPUTZ MASAIA
- ▶ EZKONTZETARAKO MAKILAIK
- ▶ BETILE ETA BEKAINEN TINTE ETA PERMANENTEA



Errebal 18 esk.
Tel. 70 27 60
EIBAR

Merkatu Plaza

Uste dazuna baino askoz gehiago!



AMAIA frutadenda



ART-FRUT frutadenda



BALLIBAR loreak eta fruta



INAKI eta **AMPARO** urdaitegia



DOMINGUEZ arrandegia



EL RUSO loradenda



MARI harategi-urdaitegia



MUGERZA frutadenda



ONDARRUTARRAK arrandegia



OSORO urdaitegia



PEREZ zapatadenda



TXILLARRE barazkiak



TXIRIBOGA taberna



ZABALA frutadenda



ZABALA urdaitegia



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Musikarako zaletasuna

La música es el arte de combinar los sonidos y las notas". Era honetan hasten ginen ikasten lehen zeren den musika, "Teoría de la Música" izeneko liburu batean zetozen musikako zenbait definizio buruz ikasi eta "Solfeo de los Solfeos" izeneko beste bateko abesti edo ariketak abestuz. Baginen zenbait, duela urte batzuk, musikako ikasketak egiten hasten ginenak, baina oso aukera gutxi izaten genuen instrumentuak aukeratzeko orduan eta hori zela-eta erdibidean geratzen ziren asko txikitzen herri irteak suposatzen zuen buruhausteagatik.

Bazegoen banda bat, txaranga bat... baina zer ikasketa zituzten horietako kideek? Autodidaktak ziren asko eta gehienak ez ziren instrumentu horren profesionalak, afizioak bultzaturik saiatzen ziren ahalik eta lanik onena egiten. Herrian ezin zen pianoa, txistua edo akordeoia ez zen beste instrumenturik ikasi eta gazte-gaztetatik kanpora joan behar izaten genuen, gurasoen ahalegin eta esfortzuaz gain, astero Donostiara edo beste hiriren batera instrumentu eta guzti joateak suposatzen zuen nekea jasanik; baina aurrera egin genuen eta gaur egun horren fruituak denok ari gara jasotzen.

Urteak pasa ahala hoberantz egin du egoera honek eta gaur egun, nahi duen guztiak du, haurra nahiz pertsona heldua

izan, instrumentuak ikasteko aukera zabala herri irten ere egin gabe. Definizioak dioen bezala, "arte" da musika eta hala ulerturik, aberastasun kulturala, entzun eta ikasten duen ororentzat, musika ikastea entzuten ikastea ere bai baita.

Inazio Bereziartua Musikeskolan musikako zenbait ikasketaz gain (solfeo, armonia, musikako formak, korala...) instrumentu ezberdinak (akordeoia, pianoa, klarineta, saxofoia, bibolina...) ikasten ari diren ehundaka ikasle aparta, Txistulari taldea, Parrokiako abesbatza, Itxaropena abesbatza, Udala Musika Banda, Dultzaineroak, Trikitixa Eskola... ditugula ikusi ondoren nor ausartzen da gure herrian ez dagoela musikarako zaletasunik esaten?

Kirolak, informatikak... denbora asko jaten digute baina animatu egin behar dugu nahi duen guztia mundu honetan sartzera, baita, ahalegin handia eginez, bertako taldeek zein kanpotik ekartzen direnek eskainitako kontzertuetara joatera ere.

Beraz, musika entzutea zein jotzea edo abestea disfrutatzeko denez, ea denok ere gehiago animatzen garen gure haurrak edo gu geu musikaren ezagutzan murgiltzen eta kontzertuetan parte hartzen; azken batean, ea herri honetan daukagun musikarako zelatsun hori berpizten dugun.

Deñe Zabalo

*Eusko Jaurerriaren
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalen
diruz lagundutako
aldizkaria*





Lucia Arrietak laga digun erretratu polit hau 1945. urtekoa da, gerraostekoa. Eliza aurrean dago aterata, eta bertan agertzen direnak Acción Católica taldeko “benjaminak” dira. Gose denbora izan arren “begira zein ondo dauden denak jantzita” adierazi digu Luciak.

Atzeko ilaran zutik, ezkerretik eskumara: **Milagros Totorika, Maite Manterola, Maite Vallejo, Kar mele Gorostiza, Miren Beloki eta Miren Agirregomezkorta.**

Bigarren ilaran: **Maritxu Urain, Isabel Murua, Matilde Zubiaurre, Arantza Iriondo, Maribel Atxa-orbea, Maritxu Agirregomezkorta, Belen Barrutia, Maria Luisa Mendikute eta Lucia Arrieta.**

Hirugarren ilaran: **Blanca M. Arana, Delfina Arriola, M. Tere Murua, Maribi Ondarre (†), M. Luisa Ruiz-Poveda, Maribi Arriola, Arrate Etxaniz eta Milagros Goenaga.**


Aurreko ilaran: **Blanca Eizagirre, Ana M. Galdos (†), Anita Aizpitarte, Mari Ezenarro, M. Tere Aierbe, M. Dolores Astigarraga, Arantza Iriondo, Begoña Gabilondo, Angelita Lizundia, Modesta Iriondo eta Maribel Azpitarte.**

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu, BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.





70 urteko salerosketen hi



1973. urtean zabaldu zen gaur egun ezagutzen dugun Merkatu Plaza. Aurretik urtetan beste bat egon zen, 1925. urtean jasotako pisu bakarreko eraikuntza eder bat, Abastos izenekoa. Garai hartan, baserritarrak astoarekin jaisten ziren kalera eta egun garajea dagoen tokian lagatzen zituzten. Batz best 50 asto izaten ziren egunean bertan. Baserritar bakarra jaisten da orain astoarekin, Andikanokoa. Gainontzean, kotxeak eta todoterrenoak baino ez dira ikusten.

Merkatu Plaza zaharrea baserritarrak elkartzen ziren beraien barazki eta frutak saltzeko. Orduan ez zegoen egungo saltoki itxirik. Mahai luzeetan edo lurrean jartzen zuten produktua, bata bestearen ondoren. Arrandegiek bakarrik zuten garbitzeko aska bat. Beste garai bat zen. Sigmako sirenak jotzen zueanean, kaleak jendez, langilez betetzen ziren, hara eta hona, bazkaldu aurretik txikito pare bat hartzeko. Orduko merkatu plaza, astegunetan ezezik, astebukaera askotan ere irekitzen zen. Domekero, euria egiten zuenean, Plazako dantzaldia merkatu plazan izaten zen. Makina bat bikote sortu ziren "agarrao" goxoak dantzatuz! Ostegunetan, berriz, azokatxoa egoten zen. Merkatu Plaza zaharrak arkupe antzekoak zituen sarreran eta han kokatzen ziren hiru saltzaile bakarrik; horien artean omen zegoen Hamalau bera ere.

1973ko eraikuntza berria

1973an eraiki zen Merkatu Plaza berria. Sei hilean behin saltokien enkantea egiten zen, nork gehiago eskaini, hark eskuratzen zuen. 45 saltokitik, sei-zazpi baino ez ziren hasi beheko solairuan. Eta goian, bost

arrandegi egon ziren garai batean. Orain bi baino ez daude.

Aldaketa asko egon da Merkatu Plazan, batzuk onerako eta beste batzuk txarrerako. Esate baterako, gaur egun 31 saltoki daude eta bezeroak erosketa guztiak egin ditzake plazatik atera gabe: barazkiak eta fruta, izozkiak, haragia, urdaitegia, arraina, loreak, ogia, egunkari eta aldizkariak; zapata konpontzailerik ere badago... eta horiek guztiak egin artean, bada kafetxo bat hartzeko aukerarik ere. Batzuk sarrera gaizki egoteaz kexu dira, eskailera asko igo beharraz. Hori dela eta, adineko pertsonak aukera dute montakargasa erabiltzeko solairu batetik bestera igo eta jaisteko.

Aldaketak

Merkatu Plaza goizeko 8etatik 1era dago irekita eta arratsaldean 4etatik 8etara. Zapatuan 8etan irekitzen da baina lak eta laurdenetan ixten. Arrazoia, garai batean Sigmako langileak leian ateratzen zirela eta haiei begira ordutegia luzatzea komeni zela izan zen.

Lehen anbulategia Merkatu Plaza ondoan zegoen, egun euskaltegia kokatzen den tokian. Horri esker, bezero asko, sendagilearena joan eta txanda iritsi zain egon

storia

bitartean, plazara sartzen ziren erosketak egitera. Mediku eta erizainek ere gauza bera egiten zuten, kafetxo bat edo beste plazako tabernan hartzen zuten... Baina, orain urte batzuk anbulategia tokiz aldatu zen. Eta horrek izan zuen eraginik Merkatu Plazan, ostegunetako azokatxoa Plaza Handira eramateak bezala. Halere, DEBEMEN eta Diputazioako Nekazaritza Saila eraikuntza berean egoteak, jendea erakartzen du.

Zenbait kexa

Merkatu Plazako saltzaileen artean bada kexarik. Esan digutenez, Udalaxeak nahiko baztertuak ditu. Kalitatezko produktua eta tratu ezin hobea eskaintzea ez omen da nahikoa gaur egun alde guztietatik datorren kompetenziaren aurrean. Zerbitzu egokia Merkatu Plazak berak ere eskaini behar du. Esaterako, beze-



Eskailerak oztopo omen dira adineko pertsonentzat



Abastos izeneko merkatu plaza 1925.ean eraiki zen. Egungoa, 1973. urtean.

ro guztiei egokitutako pasabideak ezarriz. Gaur egun eskailerak daude alde guztietan eta adineko hainbat pertsonarentzat eta haur txikiak izan eta kotxesila pasa ezinik geratzen diren emakuentzat ez dira egokiak. Arrazoi honengatik, bezero bat edo beste galdu izan omen dute. Honen aurrean, Nieves Catarain, Merkatu Plazaren ardura duen zinego-tziak esan duenez, “pasabideen arazoa konpontzeko, eraikuntza osoa bota eta berria egin behar-



ko litzateke”.

Eraikuntza mugatua

Momentu honetan sotoen tabikajea egiteak omen du lehentasuna, “badira zenbait saltoki almazenik ez dutenak eta horiei begira egin nahi da obra”, esan du Catarainek. Azken urteotan pertsianak eta lur berria jarri dira eta zinegotziaren hitzetan, “instalakuntza elektriko berria jarriko genuke dirua balego”. Aparkalekuak, tenperatura, garbiketa... Postuetako jabeek Udalaren partetik jarrera aldaketa nahi lukete,

“hilero alogera ordaintzen dugu, tasa guztiak... baina ez dugu ezer jasotzen. Herriari eskaintzen zaion zerbitzua da eta ahalik eta egoera onenean egotea komeni da”, saltzaileen hitzak dira. Honen aurrean Nievesek adierazi duenez, “urteetan komunikazio falta bat egon da eta kontuan izaten badugu eraikuntzak ia 25 urte dituela eta jendeak egunero erabiltzen duela... Eraikuntzak berak asko mugatzen du arazo konkretuei irtenbidea topatzea”.

Merkatu Plaza

Denbora gutxi daramadan arren Merkatu Plazan, gai honi buruz hainbat gogoeta eta datu azaldu nahiko nuke.

Nire ustez, beharrezkoak dira honelako salmenta lekuak. Salerosketa toki bat izateaz gain, familiako kideekin edo lagunekin topo egiteko leku aproposa ere bada, bai eta herriko kontuen berri izateko gunea ere. Argi dago beti izango dela hobea horrelako zerbait edukitzea, etxean telebista aurrean kulebroi bat ikusten geratzea baino. Merkatu Plazak jende mordo bat mugiarazten du egunero-egunero. Honek herriari BIZITASUNA ematen dio, herri orok duen bertute eta akatsekin.

Etxeoandreak egunero mugimuntuan jartzen dituen zentro bat dela esan dut piska bat gorago. Ez ditut ahaztu ordea, apur bat urrunxeago bizi direnak, Altzolan, Mendaron eta inguruko baserrietan, hutsik egin gabe etortzen direnak ostegunero Merkatu Plazara. Bai lehengaiez hornitzeko, bai bailaran eta herrian gertatutako guztiaren berri izateko. Ezin dugu ahaztu

Elgoibarrek baserri asko biltzen dituela; hortaz, pertsona ugari ere bai.

Ez noa Merkatu Plazan saltzen diren produktuen kalitatea goratze-
ra edo gaitzestera, hori bezeroen eginkizuna baita. Gaur egun supermerkatu handietan nekez izaten den tratu pertsonal zuzena aurkituko duzu merkatu plazan, bai eta elika-

gai aukera zabala ere.

Bestetik, Merkatu Plazak baserriarrentzat duen garrantzia aipatu-
ko nuke. Baserrietan landutako produktuak saltzeko leku aproposa da, eta honela iraunbizitzeko dirua ateratzen dute. Gaur egun bizi dugun krisi sasoia kontuan izanda, (gogoratu lehen jendea baserrietatik kalera jaisten zela industrian lan egite-
ra) bat baino gehiago baserrira itzuli beharrean aurkituko da langabeziatik ihes egin eta bizimodua atera ahal izateko.

Azkenik, DEBEMENek (Deba Beheko Mendi eta Nekazaritza Elkarteak) paper garrantzitsua bete beharko lukeela uste dut baserriar-
ren saltokien itxuraren egokitzapenean. Adibide gisa Ordiziako eta Tolosako merkatuak berrindartzeko egiten ari diren esfortzua aipatu nahi dut.

Era berean, zera eskatu nahi nieke Udaleko agintariei: Merkatu Plazako ordezkariekin harremanak estutzea eta elkarrizketarako pausok ematea Merkatu Plazaren itxura hobetu eta berrindartzeko. Denon mesederako izango da eta.



PELLO RUBIO



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

TXURI BELTZ

Taberna San Franzisko 38

okindegia eta gozotegia



San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

Zeren bila joaten zara Merkatu Plazara?



IGNACIO GARATE
75 urte, jubilatua

Berdurak eta arraultzak eta... Batez ere produktu freskuan bila. Baina, negargarria ez al da hau? Lehen zauana hain zan politxa, euskal itxuriakin eta... Oingua iluna da.



ADELA ROMERO
37 urte, etxekoandrea

Gaur baserritarrarengana etorri naiz tipula freskuaren bila baina normalean kaleko dendetara joaten naiz. Merkatu Plazara produktu konkretuen bila etortzen naiz batez ere.



MARIA ETXABE
74 urte, etxekoandrea

Ni gehixena frutia eta berduria, batzuetan konjelaua ere, oin txipiroiak erostera nixe... Kalian kalidadia hobetxuo da baina Plazan merkiau egoten da jeneralian.



JAVIER VICENTE
70 urte, jubilatua

Denetik erosten dut, egu-nero etortzen naiz eta. Batez ere arraina gustatzen zait, aukera handia dago eta. Kalitate onekoa dela iruditzen zait eta prezio aldetik ere ondo dago.




M. JOSEFA LUCAS
50 urte, etxekoandrea

Dena freskoagoa da, begi aurrean dago dena eta aukeratu egin dezaket.. Beti etortzen naiz, bai giroa bai eta produktuagatik ere. Baserritarren berdura, fruta, okela, arraina...



CELIA ROJO
39 urte, langabetua


Okela, urdaitegia eta ogia erosten ditut. Okela bertokoa da, hemen bertan hiltzen dutela eta horrek konfidantza ematen dit. Fruta eta barazkiak kanpoan erosteko ohitura dut.



Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42





BERDIN, S.A.

MATERIAL ELEKTRONIKO
ETA INFORMATIKO
BANATZAILEA

OLASO INDUSTRIALDEA
Olasope kalea, 3
Tel. (943) 74 12 00
Faxa: (943) 74 30 07
ELGOIBAR



GAZTELU

Ezkontza eta Jaunartze soinekoak
berriak eta bigarren eskukoak
50 modelo baino gehiago

Mota guztietako

Zatoz konpromezurik gabe! Legarre behea, 9 - Tel. 10 81 59 -

■ Azpeitira irteera Herri Eskolarekin

Elgoibarko Herri Eskolak Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta hauen gurasoentzat Azpeitira irteera antolatu du hilaren 5erako, igandea. Guraso eta seme-alabek goiza elkarrekin igarotzeko aukera izango dute, Loiolara bisitaldia eginez, trenaren eta umeen museoa ikusiz, parkean jolasteko beta izanez... Itzulera eguerdiko ordu bietarako egingo dute, jarraian La Union elkartearen lagun artean bazkaltzeko. Irteera goizeko 9,30etan izango da Madalako parketik.

■ 96-97 aurreinskripzioa Institututuan


Elgoibarko Institutuan 1996-97 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epea maiatzaren 2tik 17ra bitartekoa izango da. Arreiture Institutuan IEE (REM) eta BBB (BUP) eta Bernardo Ezenarro Institutuan LOGSE Batxilergoak, Barne Markataritza Laguntzailea, Txapa eta Pintura (II. Modulua), Enpresen administrazioa (goi mailako zikloa) eta Automobilen mekanika eta Elektrizitatea (erdi mailako zikloa) adarrak irakatsiko dira. Informazio gehiago jasotzeko honako zenbaki hauekara deitu: Arreiture 74 02 67, edo Bernardo Ezenarro 74 44 80.

■ Beteranoen futbol partidurik ez

Maiatzaren 1rako iragarrita zegoen Real Sociedad eta C.D. Elgoibarko beteranoen futbol partidua ez zen jokatu. Antza denez C.D.ak ez zuen Realeko jokalaririk Elgoibarrera jokatzera ekartzerik lortu, hortaz, beteranoen partidua ordez, Azpeitiko Lagun-Onak eta Klub Deportiboko alebiren partidua jokatu zen, 2 eta 3 galdu zutelarik azken hauek. Futbol partidu hau Errotatxoren "Bizirik Bizi" Prebentzioaren Asteko ekitaldien barruan kokatzen da.



HBk antolatuta, mitin-jaialdia izan zen joan den ostegunean Herriko Antzokian. ETAREN bake proposamena herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ekitaldi berezia antolatu zuten. Juan Carlos Marcos HBkideak aurkezpena egin ondoren, txalaparta saio bikain batek eman zion hasiera ekitaldiari. Haritz Dantzari taldekoen eskutik ikurriñari omenaldia egin zitzaion eta jarraian, Mallabiko trikitilariak eta Guk taldekoek hartu zuten parte. Ekitaldiaren azken partean Arnaldo Otegi legebiltzarkide elgoibartarrak ETAREN bake proposamenaren berri eman zien Herriko Antzokian zeuden elgoibartarrei.



Olaizaga kiroldegiko igerilekuan antolatutako uretako jolasetan 74 haur aritu ziren joan den zapatu arratsaldean. Paipo luzeak, globoak eta koltxonetak erabiliz, ondo baino hobeto pasatzeko aukera izan zuten haurrek. Haurren arteko harremanak sendotzea da jolas hauen asmoa, ez-ohikoa den medio batean, uretan, alegia. Kompetizio kutsurik gabeko jolasetan aritu ondoren, zapatu arratsaldean igerilekuan plisti-plasta ibiltzeko aukera izan zuten haurrek. Egitasmoaren arrakasta ikusita, hamabostean behin, zapatu arratsaldean jolas didaktikoak antolatuko dira igerilekuan.

Gehiegi edateari buruzko “rifi-rafe”a Herriko Antzokian

“Elgoibarren gehiegi edateari buruzko gaia eztabaida puntu izango da Errotatxo elkarteak antolatutako eztabaida edo “rifi-rafe” moduko saioan. Gaur, ostirala, hilak 3, Herriko Antzokian herriko jende mordoska bilduko da gai horri buruz eztabaidatzeko, hala nola, gazteak, gurasoak, tabernariak, Udaleko eta Mankomunitateko ordezkari bat, irakasleak... Publikoak parte hartzeko aukera izango du; horrela, ba, ez da saltsarik falta izango eztabaidan.

Bihar, berriaz, hilak 4, 37 kolektibo Plaza Handian elkartzeko dira, hauetatik batzuek tailerrak eta ekintza praktikoak egingo dituztelarik. Bizikleta eramatea gomenda-tzen dute antola-tzaileek bertan egingo diren zenbait ekintzatan parte hartu ahal izateko. Eguerdian manifestaldi batek herriko kaleak zeharkatuko ditu eta gaueko 11etan Taun Taun taldeak

“Bi kate” lana antzeztuko du Madalako parkean.

Drogei buruzko mahainguruak

Diseinuko drogen inguruan hitz egiten aritu zen Proyecto Hombre elkarteak Marga Azkona psikologoa pasa den asteartean Kultur Etxean. Ostegunean, Aska-gintza eta Adore elkarteak korruptzio eta narkotrafikoari buruz hainbat azalpen eman zituzten Kultur Etxean bildu ziren herritarren aurrean. Ekitaldi hauek guztiak Prebentzio Astearen barruan antolatutako Errotatxok “Bizirik Bizi” lemapean.



■ Aurreinskripzioa irekita dago IMHn

Elgoibarko Erreminta Makina Institutuak 1996/97 ikasturterako aurreinskripzioarako epea ireki du dagoeneko. Maiatzaren 17ra arte eman ahal izango da izena IMHko bulegoetan goizeko 8etatik 13etara eta arratsaldeko 14,30etatik 17,30ak arte 74 41 32 zenbakira deituta. III. mailako moduluetan honako hauek eskaintzen ditu IMHk: Sistema eta makina automatikoen mantenua, Delineazio industrial eta Fabrikazio mekanikoa. Datorren ikasturtean hezkuntza zikloak abian jarri gero, modulu hauek goi mailako hezkuntza zikloak bihurtuko dira.

■ Gurasoen eztabaida Kultur Etxean

Udaleko Drogomenpekotasunen Zerbitzuak eta Institutuak antolatzen duten “Zinea eta Osasuna-Irudi Biziak” programaren azken pelikula proiektatu zen joan den astean. Programa hau bost pelikulak eta bi eztabaida saioak osatu dute. Azken eztabaida saioa maiatzaren 7an izango da Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan hasita. Institutuko ikasleen gurasoei zuzendua dago eta bost pelikuletan azaldutako gaiak landuko dira.

■ Musika Bandaren kontzertua domekan

Udal Musika Bandak hileroko kontzertua eskainiko du domekan, hilak 5, eguerdiko 12,30etan Herriko Antzokian. Bost obra joko dituzte: “Olimpica” Orsomandorena, Rossiniren “La italiana en Argel” obertura, Serranoren “La canción del olvido”, “Coppelia” Delibes-ena eta Soutulloren “Puentearreas” pasodoblea, guztiak Jose Antonio Osorok zuzendutak. Ohi denez, obra bakoitza jo aurretik aurkezpen moduko bat egingo du Txomin Mujika bandakideak.

■ Sevillana ikastaroa

Maiatzaren 18tik ekainaren 15era bitartean sevillanak ikasteko aukera izango da Olaizaga kiroldegiak antolatutako ikastaroan. Larunbatetan emango dira klaseak, goizeko 10etatik 12etara bitartean. Sevillanak dantzan egiten ikasi ahal izateko 2.500 pta. ordaindu beharko dituzte bazkide direnek eta 3.500 pta. bazkide ez direnek. Informazio gehiago jasotzeko 74 13 61 zenbakira deitu.

■ Herri Urratsera joateko autobusak

Maiatzaren 12an Senpereko lakuaren bueltan izango den Herri Urrats-era joateko autobusak antolatutako Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak. Izen-ematearen zenbatekoa 800 pta.koa da bazkideentzat eta 1.000 pta.koa gainontzekoentzat. Autobusak Sigmako zubitik aterako dira goizeko 9etan.

Jose Rejo:

“IMHn ikasi duten guztiak lanean daude”

1992ko urrian inauguratu zen ofizialki Erreminta Makina Institutua, IMH. Halere, urtebete lehenago martxan zen. Proiektu ausarta, gaur egun Estatu mailan arlo honetako institutu bakarra da. Eskola gaztea da oso, bide luzea du oraindik eta ikasteko ere asko seguruena. Baina tarte txiki honetan gauza asko eta garrantzitsuak egin ditu.

Aurten bertan, Erreminta Makinaren museoa ireki nahi dute eta datorren ikasturteari begira ikasketak luzatu eta injinerutza sortzea ere asmoen artean dago. Hau guztiaz hitzegiteko Jose Rejorekin izan gara. 38 urteko ingeles filologian lizentziatutako gizon hau da hasiera-hasieratik, IMHko zuzendari gerentea.

- Zer da IMH?

- Institutuzio konplexu bat da, berritzailea eta erreminta makinaren lanbide heziketarekin lotutako arlo ezberdinei erantzuna emateko sortu zena. Bate-tik, hasierako lanbide heziketa deitzen duguna dago. Erreminta makina sortzen eta erabiltzen irakasten da: montajea, diseinua eta fabrikazioa. Bestalde, lanbide heziketa jarraitua dago. Kasu honetan langileen birziklapena lantzen dugu, bai langabetuena bai eta langile aktiboena ere.

- Bestelako zerbitzurik ere eskaintzen duzue, ez?


- Bai. Arazo tekniko konkretuen aurrean irtenbidea zein izan daitekeen aztertu eta erantzuna bilatzen diegu enpresei: planoak egiterakoan, piezen mekanizatu...

- Zein izan da lorpen handiena?

- Enpresen beharretara egokitutako hezkuntza ematea. Orain gutxi Danobaten emandako datuen arabera montadore batek lehen enpresara adaptatzen bi urte behar zituen, momentu honetan sei hilabete nahikoa da.

- Nora bideratua dago IMH?

- Enpresari begira



“IMH enpresari begira sortu zen eta helburu nagusiak hori izaten jarraitzen du”

sortu zen eta helburu nagusia horrek jarraitzen du izaten, enpresekin harreman zuzena izanez. Bide horretan jarraitzen dugun bitartean ondo ari garela esan dezakegu.

- Ikasle ohi guztiak al daude lanean?

- Bai, %100a. Are gehiago, hainbat enpresa ditugu zerrendan hurrengo promozioetako ikasleak kontratatzeke zain. Hori da enpresekin harremanetan egotearen ondorio zuzena.

- Erreminta makinak etorkizuna du?

- Etorkizun handia du eta izan behar du, osotasu-

nean Euskal Herrian sortzen den produktu estrategikoa baita. Horregatik mimatu egin behar da. Aldaketa asko jasan ditu aspaldian informatika eta elektronikak dela eta, baina aurrera begira etorkizuna ikusten zaio nahiz eta sektore alternatiboa edo osagarriak aurkitu behar diren.

- Elgoibarren txinarrak ikustera ohituak gaudete. Munduan ezagutzen al da IMH?

- Hori gehiegi esatea litzateke. AFMren bitartez, Espainiako Gobernuarekin harremanetan jarri eta txinarrak talde bati hezkuntza

programa bat eskaini genion. Lanbide heziketa produktu ona da herrialde honetan eta beste edozein produktu bezala, saldu egin daiteke.

- Zer azpimarratuko zenuke IMHtik?

- Iraunbizitza, gaur egun dena hain zaila den gizarte batean iraunbizitza azpimarragarria da, are gehiago gauza berriak egin eta haztea. Orain mekanikari buruzko lehen mailako ikasketak martxan jarri nahi ditugu, injinerutza. Pauso bat gehiago izango da.

- Zein da ikasleek jasotzen duten filosofia?

- Etorkizuna norberak idazten duela. Ez direla zain egon behar norbaitek kontratatu arte, enpresa txikiak sortu behar dituztela, lehen egiten zen bezala. Akomodatu egin gara.

- Proiekturik epe laburren?

- Abenduaren 20an 650 urte betetzen dira Elgoibar sortu zela. Data horretarako Erreminta Makinaren museoa martxan jarri nahi dugu, sektore honetan hasi zirenak gogoratu eta euren lanari omenaldi bat eginez, eskerriak emanaz, batzuetan ahaztu egiten ditugu eta.

FERISALTSA

Makina ugari ikusi zen ferian

Ganadua bezain garrantzitsua izaten da makinaria hileroko ferian. Izan ere, azken urteotan baserritarren lana asko erraztu da aurrerapenei esker. Gaur egun oso gutxi dira baserritik bizi direnak. Orain 20 urte egungo tresnak egon baira, askoz lasaiagoa izango zen beharbada baserriko bizitza. Dena dela, lehen edo orain, kale zulotik aparte bizi nahi duenarentzat abantailarik handiena horixe da, naturarekin bat egin eta lurra zuzenean ematen dionarekin bizitzea. Gure kamara hil honetan makinengana hurreratu da, aukera handia zegoen eta bat baino gehiago inguruan, ez dakigu kuriositate hutsez

begira edo zerbait erosteko interesarekin.

Joan den hilean zaldiei buruzkoak komentatu genituen. Oraingoan, berriz, maiatza izanik, ezin San Isidro eguna ez den beste gairik hautatu. Kalera jo genuen ea jendeak

Elgoibarren San Isidro ospatzen zeneko garaia gogoratzen zuen jakin nahirik. Baina, batzuek ezetz eta besteek Madarixakoarekin nahastuz, azkenean Santi Ansolak ekarri dizkigu gogora orduko jaiaren inguruak.



Ezagutu al zenuen Elgoibarren ospatzen zen San Isidro egu-


San Isidro Elgoibarren ospatzen zenean

Maiatzaren 15a San Isidro eguna da, baserritzar guztien patroia. Gaur egun Arraten izaten da ospakizuna baina orain 15 urte ingurura arte Elgoibarren izaten zan.

Meza izaten zan lehenengo. Orduan inportantzia handixa zeken oradoriek, predikadoriek eta kanpotik ere ekarri izan zian. Meza ostian prozesiua egoten zan. San Isidro santua San Lorentzon zauan eta handik ekartzen zan. Gero, Errosaixo eta San Bartolome kalietan zihar egiten zan prozesiua. Urtiekin, pentsuen kooperatibiak Bartzelonan erosi zaban Santua, oin Parrokixan dauana.

Mezia eta gero zinian diapositibak botatzen zian, danak baserrixan ingurukuak. Azkenengo bost minutuetan zezenketak botatzen zian eta gero, bertsolarixak. Hau amaitxutakuan bazkarixa itxen gendun, beti berdina: oilo-saldia, azia, baba beltzak, odolostia eta bildotsa. Ehundaka pertsona elkartzen ginan, danak gizonezkuak. Emakume bakarra etortzen zan, Aldapa baserriko Juliana. Inbitauta egoten zian alkatia, parrokua, beterinarixua, predikadoria, kaja de ahorros-eko zuzendarixa eta baitxa guarda zibilen kapitana ere. Postrietan bertsolarixak hasten zian berriz, Lazkao, Lasarte, Ustapide... Onenak. Gero, soinua izaten zan, Gelatxo zana eta Musillo panderistia. Harekin amaitzen zan jai eguna.

Gero, prozesiua kendu eta jendia bajau ein zala eta, ni konzejal nitzala, Eibarko Udaletxian juntau eta hiru herrik, Eibar, Elgoibar eta Plazen-tziak, Arraten ospatzia pentsatu gendun. Ordutik han izaten da. Mezia, prozesiua eta bazkarixa berdin egoten dia baina herri kirolak lehen ez zian oin bezela. Jendia ere bastante gehixo ibil-tzen da, gehixegi nere gustorako. Baina baserrixarren eguna San Isidrok izaten jarraitzen dau eta horri eutsi ein bihar jako.



SANTI ANSOLA



Tere Arrate, 49 urte Eguen Txiki (San Pedro)

Ez, Markinakua naz eta ona nao ezkontute oin dala 23 urte. Oin Arratera juten naz. Lehenengo mezia entzun, ondo bazkaldu eta gero herri kirolak eta ikusteitxugu.

Sabina Maguregi, 65 urte Iburguen (Etxeberria)

Markina-Etxeberrikoa naz eta guk han ospatzen dou San Isidro. Ez naz akordatzen Elgoibarren inoiz izan danik. Neu kooperatiban nao eta Markinan mezia entzun eta gero, reunixue eta bazkarixe eukitzen dou.




Lucia Telleria, 43 urte Basueta (San Lorenzo)

Nik 24 urte daruaz Elgoibarren eta horren berri ez dakat. Arratera urtero juten gera, egunpasa. San Isidro egunian jaixa eitxen dou, egun espeziala da eta.

Jesusa Odria, 63 urte Guenetxe Berri (San Roke)

Madarixan izaten zan. Urtero juten ginan arratsalde pasa, erromerixa ederra izaten zan eta gustora ibiltzen ginan. Oin kalian bizi naiz eta ez dot San Isidro ospatzen.



Jose Mendikute, 52 urte Zabaleta (San Lorenzo)

Lehen Alkortan eitxen zan bazkarixa eta gero erromerixa. Oin ere Madarixan erromerixa izaten da, San Isidruak bertako jaixak dia eta. Arratera jun izan naiz baina ostantzian ez dot eguna ospatzen.

OLAZARRA

San Migelen gora abiatu eta Urtiako bideari helduz, bide estu eta aldapatsu bati jarraituz iristen da Olazarra baserrira. Eguraldi apartak lagundu zigun eta bertaratu ginenean, baratzean lanean aurkitu genituen Bentura eta Inazio.



Kuadrila handia bizi da Olazarra baserrian, sei nagusi eta Garazi txikia.

Nraindik ere kuadrila handia bizi da Olazarra baserrian, “hiru seme geratzen jakuz. Bi mutil-zahar eta bata ezkontuta eta bi ume txikixa, Garazi, etxeko poza” esan digu Benturak. Jesus Ansola, seme gaztea, kaletar batekin ezkondu zen. Garai batean baserritarrek baserritarrekin ezkontzen ziren, “guk ezta nahi ere ez gendun nahi kaletarrekin ibiltzerik!” aitortu digu Benturak.

Poliki-poliki baserrira aurrera

Baserriko bizitza gustatzen zaie, ez lukete aldatuko, “gu holaxe ohitxu gera. Kale artian aspertu eingo ginake”. Pinuari esker atera izan dute bizitza aurrera, “lehen errezaua zan. Guk ere baserrira ezkonduakuan erosi gendun, ordura arte errenterak izan zian eta. Poliki-poliki atera genduan aurrera. Gaur baserrirak ematen dabanakin ezin da hori ein. Esaterako, pen-tsua ixo egin da baina txahalan prezia ez da mobitxu 20 urtian”. Lana arindu egin da, bai aurrerapenei esker bai eta diru iturri nagusia ez delako, “ardura gitxio dakazu ez da lehengo preokupazua”.

Ortutik mahaira

Abantailen artean handiena Benturaren ustez, “guk zer jaten dogun badakigula da. Badakigu frutia nundik datorren, letxugia, berduria, patatia, baitxa okelia eta arraultzak ere... Kalian ez dakazu seguridaderik”. Euskal

labela dela eta gauzak hoberantz ote doazen galdetu diegu baina, “ondio-kan ere gauza horrek diferentzia handirik ez dau egin. Jendiak ez dau begiratzen ze erosten daban”.

Orain urte asko biderik apenas ze-

goen Olazarra baserritik herrira. Bentura astoarekin jaisten zen esnea partitzera, “hiru ordu laurden bajatzen eta ordubete ixotzen”. Duela 20 urte inguru eurak arduratu ziren “todouno” deitzen zen harri txikia botatzeaz eta azkenik, duela 10 urte Diputazioaren eskutik asfaltatu egin zen. “Izugarrizko aldia igarri genduan. Lehen ura zala edo sikutia zala, bidia hondatu eitzen zan”.

Sutea eta uholdeak

Eguzkia bete-betea agertzen den egunetan ikusgarria da baserritik ikusten den bista, edonori inbidia emateko modukua. Halere, egoera txar bat baino gehiago bizi behar izan dute Olazarra baserrian, “ura behin eta sua bestian”. Suteak izan zirenean, inguruko pinu gehienak erre zitzaizkien eta ia ia baserrira ere harrapatu zuen. “Ufalekin ere estu ibili ginan. Mendi dana mobitxu zan, bide gutxiak apurtu zian, ezin ginan inundi bajau”, azaldu digute.

Kontu gaiztoak alde batera utzita, sanmigeldar hauek eguna joan eguna etorri, gustuko bizitza daukate, “auzo ona da. Domeketan mezara, frontoia badao, jai ederrak ere...”. Aldatzeko asmorik ez daukate behintzat.

OLAZARRA

- **Auzoa:** San Migel
- **Bizilagunak:** Inazio Ansola, 75 urte; Bentura Arrieta, 70 urte; Agustin Ansola, 44 urte; Jose Luis Ansola, 40 urte; Jesus Ansola, 31 urte; Begoña Osa, 28 urte eta Garazi Ansola Osa, 3 urte.
- **Lur hedadura:** 22 hektarea.
- **Ganadua:** okelatarako 8 behi, idiskoa eta 7 txahal.
- **Produktua:** ortua eta frutarbolak.

BAINUETXERA OPORRETAN

laz 15 egun jai hartu eta Fiteroko bainuetxera joan ziren. Bentura oso gustura geratu zen “lasai-lasai egon ginan”. Baina Inaziok bestelako iritzia dauka, “egun gutzia ur artian, gastau ein nitzan ni. Lehen mehia banao, kiluak galduta etorri nitzan, demaseko katarruakin. Ondio-kan ere aztarnak dakadaz”. Bere ortuan lanean gusturago Inazio. Hurrengoan oporrak noiz hartuko dituzten ez dakite. Nora joango ez diren nahiko argi dago, ez Inazio?

Isidro Mugerza:

“Asko poztuko litzake Candido omenaldixakin”

Maiatzaren 19an Candido Txurruka aizkolari zenari omenaldia egingo zaio Elgoibarren. Orain sei hilabete inguru hil zen Candido eta ordurako prestatzen hasia zen jaia bere omenez. Aizkolari eta trontzalariak izango dira ikuskizunean. Guk, Candidori buruz gehiago jakin nahi izan eta Belaustegiko Isidro Mugerzarengana jo dugu, koinatuarengana.



- Zure arrebarekin ezkondu zen Candido.

- Bai. Olatzkua zan Candido, Mutriku aldekoa. Behin, gurera etorri zan basua garbitzen lagun-tzera. Gurian itxen zaban jan da lo ta dana. Oso etxekua ein zan, domekan ere ez zaban harek etxera juterik nahi. Eta arrebia ere gustau jakon, Benita. Holaxe nobixo ein eta ezkondu zian.

- Halere, zoritxarra izan zuten.

- Bai, lehenengo alabatxua euki zabanian hil zan arrebia. Handik urte batzutara Candido berriz ezkondu zan. Lerun Txiki baserriko Mariakin.

- Kontaiguzu, Isidro. Nola hasi zen Candido aizkolari?

- Gabon Zahar baten, Rezola alkate zala, entzun zaban Candido aizkoriakin zeozer ibil-tzen zala ta holaxe. Biren kontra jun zan bera bakarrik eta baitxa irabazi ere. Ostian, Kortabarrin kontra ere jun ta irabazi, Azkoitxiko Luzia zanan anaixari irabazi, baitxa Goñi naparrari ere, Idurrebasori... Daneri!

- Zein ezaugarri zuen, ba?

- Indarra. Indar haundixa zakan horregatik egur haundixakin ibiltzen zan gehixo. Gizon haundixa zan, 190 cm.ko altura eta 110 kiloko pisua.

- Asko, ez?

- Esaten zion gure aitxa zanak pisua bajau bihar zabala. Behin kotxia

hartu eta Candido atzetik jarri zaban saltaka. Harek zakan pisua batetik eta bide txarra bestetik, hurrengo goizian gorputz guztixa minez esnatu zan. Gehixo ez zaban harek saltarik ein!

“Indar haundixa zakan horregatik egur haundixakin ibiltzen zan gehixo”

- Asko jaten omen zuen.

- Bueno! Goizian, Kalamuara juten zanian, armozatzeko berakatz zopia bi arrautzakin eta txuletia jaten zaban. Armozatzeko hori! gero berriz bazkaixa. Berduriak ez zakala indarrik eta babia edo jaten zaban beste platerkada haundi bat, ostera berriz ere txuletia... Jatuna zan.

- Nolakoa zen Candido?

- Gizon jatorra, oso jatorra. Lagunartia gustatzen jakon, erromerixara jun eta dantza eitxia, herri kirolak ikustia... Pertsona jatorra benetan.

- Aizkolari ona, baina goiz erretiratu zen.

- Bai, ezkondu zanian. Nobixotan beti esaten zion arrebak laga-tzeko, tratu txarra ematen ziola egurrak eta. Ezkondu zian eta etxia erosi zaben Eibarren, Lanbretan hasi zan lanian eta aizkoriari laga egin zion, hogeita urte gitxikin. Sasoiko gizona zan eta penia eman zion baina... Gainera, aizkoria deporte karua da.

- Bai?

- Orduan, egurran metro kubikua 900 pta.n zauan. Oso karua zan!

- Omenaldia ez al da berandu iristen?

- Bizirik zaula pentsauta zauan eta preparatzen hasitxa ere, Candidok bazakixan baina... zoritxarrez lehenao hil zan. Badakitx nik gustura jungo zala omenajera bizirik egon baltiz.

Patxi Lodoso

Lodoso
Leihoak-ekoa



● **Zure etxeko leihotik barrura begiratuko bagenu goizean goiz?**

▶ Leiho egokiak ditudanez, kanpoan euria eta hotza balego, etxean erosotasuna eta beroa egongo litzateke.

● **Beira gardena al du munduko leihoak?** ▶ Garbitu beharra du baina ez dago jendeak ikusten duen bezain zikina.

● **Etorkizunari leihoa ireki ala itxi egingo zenioke?**

▶ Ireki, dudarik gabe. Baikorra izan behar da.

● **Zein koloretako leihoak jarriko zenituzke Elgoibarko etxeetan?**

▶ Urdin argiak, zeruaren kolorekoak.

● **Betaurreko berezi batzuei esker, zuk nahi duzuna ikus dezakezu. Zer?** ▶ Armonia, maitasuna...

● **Zein eraikuntzari emango zenioke bizitza?**

▶ 500 emakumeri lana emango liokeen fabrika bati.

● **Bizitzaren eskailerak norberak egiten ditu pausoz pauso ala jaiotzen garenerako, patuak eginak ematen dizkigu?**

▶ Guk geuk eraikitzen ditugu.

● **Elgoibar balkoi batetik begiratuko bazenu?**

▶ Parke eder bat ikusi nahi nuke, gaur egun ez dagoena.

● **Zein da bizi-poza ematen dizun iturria?** ▶ Familia eta lagunak.

● **Atsegin ez dituzun egoeren aurrean zein da isladatzeko manpararik egokiena?** ▶ Errespetua.

● **Zer nahi zenuke haunditzea lupa batez?** ▶ Adiskidetasuna.

● **Zein animaliaren birtutea izan nahi zenuke?**

▶ Zaldiaren elegantzia.

● **Artista izatekotan, zein arlo aukeratuko zenuke?**

▶ Leonardo Da Vinci izan nahi nuke, artea bere osotasunean lantzeko.

● **Igel asko musukatu behar dira printzesa topatzeko?**

▶ Ez dakit, nik oraindik ez dut aurkitu behintzat.

● **Bizikleta gainean egindako kilometro bakoitzagatik ordainduko balizute?** ▶ Aberastasuna ez du diruak bakarrik ematen. Nik kilometro gehiago egin eta ikasi eta ikusteko gogoia izango nuke beti.

● **Aukeran, zein lanbide izan nahi zenuke?** ▶ Asmatzailea.

EMAKUMEAK FUTBOLEAN

DOINUA:

Txoriak eta txoriburuak

Emakumeak ari zaizkigu gizonetzkoak bezala baloia eta praka motzekin zelaira badoazela astean zehar gogor saiatu ta entrenatzen dutela horregaitikan partiduetan golak sartzen dituztela.

Elgoibarko nesken taldea lanean fin dabil aurten eta sarritan aritzen dira partiduak irabazten gogorrek eta onak direla ari dira erakusten Kopan garaile suertatutzeko zortea diet ematen.



ITZIAR LEIARISTI

B
E
R
R
E
T
S
O
T
A
N



**Gabiola
GESTORIA**

Egun gutxi geratzen dira Errenta Aitorpena egiteko.
Guk lagunduko dizugu **LEHEN BAIT LEHEN EGITEN.**

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR

LODOSO LEIHOAK
MERKATUKO AZKENA
DAUKAGU LEIHOETAN



Ermuaranbide 16. ☎ 74 34 90

Biztanle eta etxeei buruzko inkestak egiten hasi da Udala

Orain hilabete inguru azaldu bezala, udal biztanleen eta etxeen errolda gaurkotzeko asmoa du Udaletxeak. Horretarako, maiatzaren 2an hasita, 11 inkestatzaile etxez etxe ibiliko dira. Batetik, biztanleen erroldari buruzko datuak jasotzeko, izen-abizena, NAN zenbakia, ikasketak, lanbidea, etxe bakoitzean zein bizi diren eta euren arteko harremana zein den eta bestelako galderak erantzun beharko dira. Bestetik etxeei buruzko errolda osatzeko, noiz eraiki zen, zenbat metro karratu dituen, dutxarik baduen, kalefaziarik... eta abar izango dira erantzun beharreko galderak. Legearen arabera, jendea erantzutera behartuta dago. Inkestatzaileak identifikatuak egongo dira eta arren eskatzen da, etxeetako atea jotzen dutenean, jendeak galderak erantzun ditzala. Aurten azkenengo aldiz egingo da erroldaren gaurkotzea inkesta bidez. Hemendik aurrera, sistema informatikoari esker ez da horren beharrik izango.

San Pedro udan zaintzeko pertsona bat behar du Udalak

Uda garaia bertan dagoela eta, Udalak jakinarazi du San Pedroko kanpako zaintzale izan nahi duenak izena eman dezakeela dagoeneko Udaletxean. Epea maiatzaren 6a eta 11 bitartean luzatuko da. Uztailea, abuztua eta irailean zehar, zaintzaleak San Pedroko ardura izango du. Bere esku egongo da batetik autoen aparkalekuak behar bezala egokitzea, mahaien

antolaketa, jendeak zaborren inguruko arauak errespetaraztea eta beste hainbat gauza... Printzipioz ez da inolako oinarririk egongo nahiz eta zaintzaleak euskarari buruzko gutxieneko ezagutza izan behar duen. Zerrenda osatzen denean, azterketa edo frogaren bat egingo da seguruenari, nahiz eta oraindik ezer ez den zehaztu.



J. A. AVILA

Uztailetik urrira bitartean San Pedroko zelaia zaintzeko pertsona bat hartuko du Udalak.

AUTOBUSAK



ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra



Maiatzaren 12a, igandea

HERRI URRATS 96
Senperen

Prezioa: 1.000 pta. (Bazkideak 800 pta.)
Izena emateko: Elgoibarko Izarra K. E.

LAGUNTZAILEAK:

Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia



Apraizeko errota

■ Errota burdinola baino beherago dago eta azken honek erabilitako ura berrerabiltzen zuen alea ehotzeko. Burdinolaren garai beretsukoa da seguruen. Urtegia harlanduz eraikia dago, kararren artean masarik ez delarik nabaritzen.


■ Errotaren egitura, azpiko aldeko ganga izan ezik, egurrezkoa izan da duela gutxira arte. Gaur egun, Debemen-en laguntzaz, harrizko hormak egin zaizkio. Azpiko aldeko ganga, aintzinakoa, kanoi erakoa da eta uharriz eraikia dago.

■ Garai batean errota-etxetxoan bi errota zeuden. Lehengo mendean bat kendu egin zen eta ginbaleta edo barrena jarri zen haren orde. Gaur egun, errota bakarra dago.

■ Errotaren mekanismoak ustez bertako burdinolan egindako tirante bat mantentzen du oraindik.

■ Honez gain, ikusgai daude aintzinako balantza bat, bi arroba inguruko harrizko pisu bat eta Madalako parkean egon zen hiltegiko beste pisu batzuk ere.

PELLO ARRIETA



Manuel Loiola Mugerza (1925-1977)



- San Pedroko Usatorre baserrian jaio zen 1925eko irailaren 17an.
- Lau anai-arrebatatik hirugarrena zen. Auzoko Aubixa baserrira ezkondu zen, Joxeparekin.
- San Pedroko meza osteko mus jokaldiak gogoko zituen; baita bi arrebeekin izaten zituen truke saioak ere.
- Lagunen lagun handia zen; txiste kontalari aparta eta bertsolari ona.
- Eskulanetarako trebea zen, besteak beste, zumitzean. Arotza ere bazen eta perratzailea ere bai. Galtzerdien-tzako haria egiten zuen eta emakumeei ogia egiten laguntzen zien.
- 1964an baserria utzi eta familiarekin kalera etorri zen bizitzera. Lehenengo Eguzki lantegian egin zuen lan eta gero Danobat-en.
- 1977ko uztailaren 7an hil zen. Antton Aranburuk hauxe idatzi zuen bere errekoratorioan: *“Agur eginik, Manuel, joan zinen gure ingurutik, Aubixaldeko zuhaitz lerdena gure bihotzean zutik! Irabazia duzu joko hogeitahamaika eskutik, Agur, Manuel, eta zeureok zaindu gaitzazu zerutik”*.

MAIATZA

5

AMAREN EGUNA

Erosi al diozu oparia amari? Ez al dakizu zer erosi?
PASA DEN ASTEKO BARRENen 16 IDEIA DAUZKAZU.

MOTZAK

Gipuzkoako Bolo Txapelketako emaitzak

Sanmigeldarrak nagusi izan ziren bai taldeka bai banaka, joan den larunbatean San Migelen jokatu zen Gipuzkoako Boloen txapelketako azkenaurreko tiraldian. San Migel B nagusitu zen taldeka eta Julian Loiola banakakoan. Sailkapen orokorrean lehendabiziko lekuan dago Julian Liola 24 txirlorekin. Hurrengo elgoibartar sailkatua laugarren doan San Migel A taldeko J. Osoro da, 22 txirlorekin. Taldeka, San Migeleko bi taldeak dira lehenengo doazenak. Txapela eskuratzeko aukera handiekin, lehenengo, San Migel A taldea dago, eta hauen atzetik, bigarren postuan, San Migel B. Azken tiraldia Azkoitin jokatu da zapatuan, maiatzak 4, arratsaldeko 5etan.

Brontzezko bi domina Euskadiko Judo Txapelketan

Ibai Klubeko Egoitz Morak eta Esther Idiakezek brontzezko domina irabazi zuten Gasteizen jokatu zen Euskadiko Judo Txapelketan, 15 urtetik beherako mailan. Egoitz Morak finalean parte hartzeko aukera izan bazuen ere, finalerdiko azken segunduetan galdu egin zuen borrokaldira. Ibai Klubekoak kexu dira txapelketaren antolakuntza kaxkarra dela-eta. Itxuraz, arratsaldeko 3etan hasi zen txapelketa gaueko 10ak arte luzatu zen.



Merce Rey:


"Gehiago dakienarekin borrokatzea dut gogoko"

■ **Zenbat urte gerriko beltza lortzeko?** - Duela sei urte hasi nintzen. Egia esan, orain ikasten hasi naizen sentsazioa daukat. Orain hasien zara ulertzen zer den judoa, asko dakien jendea ikusi eta ezer ez dakidala konturatzen naiz.

■ **Gerriko beltza lortzeko azterketa nolakoa da?** - Batzuk txapelketetan lortutako puntuak izaten dituzte eta horien azterketa teorikoa ez da hain sakona izaten. Gainontzean azterketa teorikoa konplexuagoa izaten da. Nik puntuak neuzkanez ez nuen teorikoa egin.

■ **Nesken aurka borrokatzen duzu?** - Txapelketetan bai baina gimnasioan ez, nire adineko bi bakarrik gaudelako, ni neu eta beste neska bat, hura ere gerriko beltza. Hala ere, nik baino gehiago dakien jendearekin borrokatzea gustatzen zait, Manu irakaslearekin adibidez. Beti ikasten da zeozer berria.

■ **Judoak kirol teknika dirudi.** - Bai baina inprobisazioa ere bada. Pertsona bat oso altua edo sendoa bada, modu diferentean egingo dituzu mugimenduak; etengabe inprobisatu beharra dago. Teknika egiten ari zarenean teknikak agintzen duen bezala egiten duzu mugimendua, baina txapelketa batean adibidez, beste gauza ba-



tzuk hartzen dira kontuan, abiadura, genioa, arerioaren akatsez baliatu...

■ **Gorputzarekin kontaktu handia dago.** - Bai, lehenengo heldu egiten diozu arerioari. Gero desorekatu eta ondoren teknika aplikatu. Kolpea ematen duzunean lurrera botatzen duzu. Bizkarrez erortzen bada irabazi egiten duzu, "ippon" deitzen zaio. Irabazteko beste modua 30 segundoz immobilizatuta edukitzea da. Hauxe gain, estrangulazioak eta luxazioak ere badaude. Kasu hauetan errenditu egin behar zara derrigorrez.

■ **Arriskutsua dirudi.** - Baina praktikan ez. Kirol guztietan dago agresibitatea. Kontua da judoa oso ikusgarria dela, erortzean badirudi mina hartzen duzula baina ez da horrela. Ez dut sekula lesiorik izan.

■ **Zure buruarengan seguritate gehiago duzu?** - Zerbait gertatuz gero badakizu nola defendatu. Niri seguritatea ematen dit. Hala ere ez dakit 80 kiloko pertsona bat lurrera botatzeko gai izango nintzatekeen baina...

• Adina: 26
• Ahozkatzeko zaila den mugimendu baten izena? Morote seoinage
• Eta eraginkorra? Berdina
• Hobbiak? Dena probatzea gustatzen zait.

karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
moda
San Bartolome 18
☎ 74 08 49

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

Jantzi zure egongelak diseinu berriekin.

DEITU KONPROMEZURIK GABE!

Olaso kalea 54 Tel: 74 44 57 ELGOIBAR

laz bezala aurten ere txapeldunorde geratu dira Klub Deportiboko neskek

C.D. Elgoibarko Elkarteko nesken taldeak Ligako denboraldia amaitu berri du eta orain Kopa jokatzeko dihardute. Bigarren geratu dira sailkapenean, arrasatearren atzetik. Txapela eskuartearen eduki duten arren, azkenean ihes egin die garaipenak, duela bi aste Mintxetan jokatu zuten partidua eskas baten erruz. Hala ere, animoak ez dute behera egin. “laz bigarren geratu ginan, aurten ere bigarren, baina datorren urtean...”



Ezkerretik hasita atzean: Alberto Hernandez (entrenatzailea), Ivana Ortueta, Amaia Epelde, M. Paz Berdonces, Irene Elorza, Nerea Oñederra, Vanessa Ortueta, Leire Zubiaurre, Laura Mujika, Eulali Moreno eta Roberto García (entrenatzailea). Makurtuta: Itziar Gurrutxaga, Amaia Rubio, Ainhoa Alberdi, Maider Oñal, Iurre Arakistain, Marta Díez, Saioa Rodriguez eta Itziar Korta. Miren Mujika eta Maider Martínez falta dira.

Alberto Hernandez eta Roberto García entrenatzen duten 19 nesken talde honek OHOTik darama futboleko jokatzeko. Alberto Hernandez da hasieratik taldeko entrenatzailea. “Gazteenek 16-17 urte dituzte eta beterranoenek 21-23 edo, hala ere gehienak 18 urtekoak dira. Asko txikitatik hasi ziren, batzuk 9 urte daramate nirekin, ia neure alabak bezala dira”. Ikastolan futbitoan hasi ziren. “Gero beste talde bat gehitu zitzaion eta bi urte jokatu genuen hondartzako txapelketan, urte baten Deban eta hurrengoan Zarautzen”. Mintxeta eraiki ondoren Klub Deportiboan sartu ziren.

Gaur egun erregional mailan daude. Gipuzkoako taldeen aurka jokatzeko dute eta duela hiru urte hasi ziren maila honetan. “Lehen urtean zortzigarren postuan geratu ginen, lehen urtea izateko oso ondo”. Bigarren urtean eta aurten ere bai, txapeldunorde geratu dira. Igotzekotan nazional mailara igoko lirake eta Euskal Herriko taldeen aurka jokatu lukete. Baina horre-

tarako Ligako txapeldun geratzea behar-beharrezkoa da, lehenengo sailkatzen den taldea bakarrik igotzen baita mailaz.

Entrenamenduak futbol-teknika lantzean oinarritzen dira batez ere. Baloiarekin etengabe ibiltzen dira jokoan edo lanean, tenika lantzen. Ordu t' erdiz entrenatzen dute astean pare bat egunetan. “Gustura

etortzen gera; esamintan ere bai, relajazio moduko bat da”.

Nesken futbolariek garrantzi handirik ez duela sentitzen dute. “Jendia Haundixa ikustera etortzen da. Hala ere badaoz hiru edo lau pertsona gu ikustera etortzen diazenak, hutsik egin gabe. Ekipo ona gera eta partidua ikustera jende gehixoa etortzia gustauko litzaiguke”.

Guztiaren gaintik, lagunak

Aurten ezinezkoa izan da txapela lortu eta kategoriaz igotzea. Kontserbadoreegi jokatu zutela dio entrenatzaileak, agian gehiago arriskatu behar izan zutela edo; errua zorte txarrarena izan zela diote neskek. Hala ere, taldean ez da aurpegi tristerik ikusten. Bai entrenatzaileak bai jokalariek, denak ados datoz gauza batean: “zer dan taldearen onena? edade eta kuadrila diferentekua izan arren, talde bat gerala, lagunak; eta hori igarri eitxen da jokatzera”. Entrenamenduak lagun arteko topaketak dira. “Onena afarixak izaten diaz”, aho batez emandako erantzuna da. Aurten bigarren izateak zertxobait ilundu badu ere neska hauen lana, erritmo honetan jarraituz gero, datorren urtean

KIROLA

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 1 - Zarautz 2 (Kadeteak)
Haundi 5 - Amorebieta 1
 Elgoibar 1 - Anaitasuna 0 (1. erreg.)
 Ondarroa 1 - Elgoibar 1 (Jubenilak)
 Zumaia 1 - Elgoibar 3 (Neskak)
 S. T. Lizeoa 3 - Elgoibar 0 (Infantilak)
 Elgoibar 2 - Urola 0 (Jubenilak)
 Elgoibar 1 - Añorga 1 (Neskak)
 Elgoibar 0 - Kilimon 0 (1. erreg.)

Eskubaloia

Bergara 8 - Pagoaga Elg. 26 (Kad. neskak)
 Elgoibar 34 - Almen 14 (Kad. mutilak)
 Bergara 19 - Elgoibar 19 (Jubenilak)
 Pagoaga Elg. 29 - Urola 7 (Kad. neskak)
 Elgoibar 26 - Arrasate 15 (Jubenilak)

Areto futbola

Puerto. Pasajes 8 - Elgoibar 3 (1. maila)
 Beti Gazte 8 - Elgoibar 2 (2. maila)

Pilota

Herrien Arteko Txapelketa
 Elgoibar 1 - Amezketeta 2
 Elgoibar 18 - Amezketeta 5 (Kadeteak)
 Elgoibar 6 - Amezketeta 22 (Jubenilak)
 Elgoibar 5 - Amezketeta 22 (Seniorrak)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 4
 12,00 Urki B - La Salle (Jubenilak)
 17,00 Elgoibar - S.D. Eibar (1. erreg.)
 18,45 Eibartarrak - Mondragon (Neskak)
Igandea, 5
 10,00 S.D. Eibar - R. Sociedad
 (Ohorezko kadeteak)
 12,00 Elgoibar - S. Herrera (Infantilak)
 16,00 Beti Sutan - La Salle (1. erreg.)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 4
 19,00 Txankakua S.T. - Uztapide

Areto futbola, Kiroldegian

Ostirala, 3
 22,00 Elgoibar - Pub El Cisne (2. maila)
 23,00 Elgoibar - Sidrería Araeta (1. maila)

Orbela eta Pedruskos izan dira Ligako eta Kopako txapeldunak

Amaitu da Urasandiko Futbito Txapelketa. Joan den igandeetan jokatu ziren azken partiduak eta Ligan Orbela izan zen txapelduna eta Pedruskos taldea Kopan. Kopako finalean 4 eta 3 irabazi zuten Pedruskos-ekoek Luky Luke taldekoen aurka eta Ligan, berriz, Orbela taldekoak aise nagusitu ziren, 0 eta 5 irabazi baitziren Sanroketarrakoei. Iazko urriaren 14an hasi zen txapelketan 20 taldek hartu du parte aurten. Hauetatik 12 talde aritu da Kopan eta 8 Ligan.

Sailkapena


Liga

- 1- Orbela
- 2- Sanroketarra
- 3- Karkis
- 4- Kosakos

Kopa

- 1- Pedruskos
- 2- Lucky Luke

PEDRUSKOS, Kopako txapeldunak



ORBELA, Ligako txapeldunak



Angel Romero
Orbela
(Ligako txapeldunak)



Sanroketarrak
(Ligako bigarrenak)




J. Luis Toledano
Karkis
(Ligako hirugarrenak)



Kosakos
(Ligako laugarrenak)



Gari Muñoz
Pedruskos
(Kopako txapeldunak)



Jonatan Aldazabal
Lucky Luke
(Kopako bigarrenak)



Fran Boo P.S.K.
(Gol gutxien jaso dituen atezaina)



Asier Arrieta
Sanroketarrak
(Golegileena)

550 haurrek hartu du parte Liburutegiak antolatutako II. Idazlan eta Marrazki lehiaketan

Udal Liburutegiak antolatzen duen Marrazki eta Ipuin Lehiaketaren bigarren edizioak baditu dagoeneko irabazleak. Joan den asteartean eman zituzten ezagutzera irabazleen izenak eta arratsaldeko 5etan sari banaketa ekitaldia izan zen. Marrazkirik onena Iria Vicentek egindakoa izan zen eta idazlanen atalean Uxue Alberdik jaso zuen lehen saria.

Marrazki lehiaketan bigarren saria Unai Arcek margotutako marrazkiak merezi izan zuen. Lehen bi sariak ezezik, hirugarren bat ere banatu zen marrazkien sailan, aipamen berezia edo akzesita, Arantxa Aranori eman zitzaiona. Atal honetan OHOk lehen eta laugarren maila bitarteko ikasleek hartu dute parte, guztira 280 lan aurkeztu direlarik.

Idazlan lehiaketan 4. mailatik 8.era bitartekoek hartu dute parte. 160 lanen artean bi izan dira saritutakoak, Uxue Alberdiren "Oihaneko bidaia kilikagarria" eta Josu Duranen "Bidaia Caribera".

Sari banaketa irabazleek oparira jaso zuten eta lehiaketan parte hartu zuten haurren artean goxokiak banatu ziren. Idazlan eta marrazkiak saritu dituen epaimahaia Liburutegiko langileek osatu dute. Irakurketa bultzatzeko kanpianaren barruan Liburutegiak antolatzen duen lehiaketan 550 haurrek hartu du parte, iaz bestek.



Ezkerretik hasita Josu Duran, Unai Arce, Arantza Arano eta Uxue Alberdi Ana Santolaia zinegotziarekin. Sari banaketa ez zen izan Iria Vicente.

Sarituak

IDAZLAN LEHIAKETA

- Lehen saria: Uxue Alberdi "Oihaneko bidaia kilikagarria"
- Bigarren saria: Josu Durán "Bidaia Caribera"

MARRAZKI LEHIAKETA

- Lehen saria: Iria Vicente
- Bigarren saria: Unai Arce
- Aipamen berezia: Arantxa Arano

ZELETA

Barazkiak

BARATZGINTZA tradizionala eta babestua.

Landare exberdinak produzitzen ari gara: tomate hibridoak, piperra, ...



Betiko dendetan aurkituko dituzu gure landareak:

Luis Kortaberria
"Otsua"

Txarridana
PENTSUAK

INEKO
Nekazari Kooperatiba

ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22 - San Migel Auzoa - ELGOIBAR

Brasil eta Mexikotik etorriak



Daniele Vanesa Braga

- Orain 8 hilabete iritsi zinen.

- Nire aitaordekoa Brasilera joan, ama ezagutu, maitemindu eta ezkondu egin ziren Debara. Ni Brasilen bizi izan naiz amonarekin baina bera hiltzean etorri egin behar izan nuen.

- **Nolakoak gara euskaldunak?**

- Oso ezberdinak. Esaterako, hemen lehen aldiz 18 urterekin maitemintzen da jendea normalean eta Brasilen 14 urtekin hasten gara mutilekin. Mutilak hemen ez dira hain edukatuak nahiz eta sinpatikoak diren. Nere ustez, daukaten adinerako ez dira oso helduak hemen.

- **Ohitura ezberdinen bat?**

- Brasilen, nire institutuan 60 ikasle geunden gelan. Horietatik bik bakarrik erretzen zuten eta bakarrik edaten zuen. Hemen, aldiz, oso hedatua dago gazteen artean. Bestalde, Brasilen jende asko ezagutzeko aukera dago, apenas dirurik gastatu gabe. Hemen bizitza nahiko monotonoa da, beti berdina, jende berdinarekin.

- **Geratzeko asmorik?**

- Ikasketak amaitu arte behintzat. Bizitza maila hobea da hemen Brasilen baino. Gerora Brasilera itzuli nahi nuke.

- **Gustatu zaizun zerbait?**

- Janaria! 7 kilo hartu ditut 8 hilabetetan. Zarautz ere izugarri gustatu zait.

- **Zer botatzen duzu faltan?**


- Familia eta lagunak. 200 eskutitz jaso ditut dagoeneko.

- **Anekdotarik?**

- Anekdotak ez da, baina ez naiz hemen egiten duen hotzera ohitzen!

Daniele Vanesa Braga eta Adina Abril Santos. 17 eta 16 urte dituzte eta izenean nabari daiteke atzeritarrak direla. Lehenengoa Brasilgoa da, bestea mexikarra. 9 hilabete daramatzate Euskal Herrian.

Daniele Deban bizi da baina biak daude Herriko Insitututuan ikasten. Batetik eta bestetik gauzak jakin nahirik, ohitura berezi bat edo beste ezagutu dugu.



Adina Abril Santos



- Zure aita elgoibartarra da.

- Bai eta ama mexikarra. Beti bizi izan gara Mexikon baina aitek buruan sartuta zeukan noizbait itzuli egin behar zuela.

Orain 9 hilabete etorri ginen. Asko aldatu da bizitza niretzat.

- **Zein zentzutan?** - Askatasun gutxiago dut. Hemen jendea ezer jakin gabe nitaz gauzak esaten joaten zaizkio gurasoei eta gure arteko harremana hoztu egin da, konfidantza gutxiago dute nigan.

- **Oso ezberdina al da hau?** - Bai, ez du zerikusirik. Han egunero ateratzen ginen, hondartzara joan, diskotekara ere joaten ginen... Hemen ere Guass-era joaten naiz baina... Bada ohitura bat hemen ez daukazuena eta oso polita dena, Mexikon eta Brasilen ere egiten dute.

- **Kontaiguzu.** - 15 urteko jaia da. Neskek 15 urte betetzen dutenean jai handi bat antolatzen da, ezkontza baten antzekoa. Neskak soineko larrosa batez jazten dira, meza izaten da, bazkari eder bat familiarekin eta, bazkal ostean, neskak balsa dantzatzen du berak nahi duen mutilarekin. Oso jai polita izaten da.

- **Espero ez zenuen zerbait?**

- Jendeak oso ondo hartu nau, lagun onak egin ditut. Asko gustatu zait jendearen izakera.

- **Nobiorik ere ba omen duzu.**

- Bai, elgoibartarra. Hemen gertatu zaidan gauzarik onenetariko da.

- **Zuk ere Mexikora itzultzeko asmoa?** - Bai, 18 urte betetzean itzultzeko asmoa daukat.

- **Eta zure nobioa?** - Nirekin etorriko dela esaten dit.

Garajeak

- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.
☎ 74 31 07
- ❖ Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. zenbakian.
☎ 74 13 77
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.
☎ 74 21 21
- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut beltzean.
☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut P. M. Uruzuno 12-14an.
☎ 74 22 00
gaueko 9etatik aurrera

Lana

- ❖ NAGUSIAK ZAINDU eta konpaina egiteko prest nago.
☎ 74 33 19 Maria
- ❖ HAURRAK edo PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
☎ 74 20 24 M. Angeles
- ❖ GONAK josten ditut neurrira. Zaharra ekarri eta berdin berdina egingo dizut.
☎ 74 21 40 Konsuelo

Salerosketak

- ❖ MOUNTAIN BIKE bizikleta berria saltzen dut.
☎ 74 30 30
- ❖ JIMSON Elite sport 49cc motorra salgai. Oso prezio onean.
☎ 19 21 40
- ❖ MENDIKO MOTORRA saltzen dut. 49cc, konponketa txiki bat behar du. 20.000 pta.
☎ 19 21 07
(gaueko 9etatik aurrera)
- ❖ PIANO BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 24 51 Maite
- ❖ BOXER TXAKURKUMEA saltzen ditut.
☎ 74 28 68 gauetz

Etxebizitzak

- ❖ Errosario kalean PISU BAT ALOKATZEN DA.
☎ 74 09 74
- ❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako, abuztua izan ezik, SANTA POLAN.
☎ 74 12 13 Carmen
- ❖ PISU BAT SALTZEN dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 24 51

Agurrak

- ❖ ZORIONAK maiatzaren 8an urteak beteko dituen ARRATERi Olaia, Urko eta Ainararen partez.
- ❖ ZORIONAK ARANTXA eta egun on bat pasa dezazula Urko, Olaia eta Ainararen partez.
- ❖ ZORIONAK MIREN ALBARRANi maiatzaren 4ean 13 urte egingo dituelako Idoia, Miren, Koldo eta Aitorren partez.
- ❖ ZORIONAK BIKENTZlri neska laguna aurkitu dabalako.
- ❖ ZORIONAK ION ODRIOZOLARI maiatzaren 1ean 6 urte egin zituelako. Bere anaia Asierren partez.
- ❖ ZORIONAK HARITZ ARRIETA ODRIARI apirilaren 26an bere urtebetetzea izan zelako. Sendi osoaren partez.
- ❖ BINTXENSO ZORIONAK odolostearen senideen partez.
- ❖ ZORIONAK FERNANDO eta MIRARI anai-arreba guraso eta koinatu koinaten partez. Biharko eguna zorionsua izan dadila opa dizuegu.

APIRILEAN

Hildakoak

- ▶ Julio Vila Conde, 79 urte (Apirilak 5)
- ▶ Pedro Maria Iriondo Arregi, 58 urte (Apirilak 6)
- ▶ Francisco Manuel Lorenzo Oliveira, 30 urte (Apirilak 7)
- ▶ Francisca Torinos García, 73 urte (Apirilak 10)
- ▶ Maria Luisa Lizarraga Llarena, 63 urte (Apirilak 30)

Jaiotakoak

- Nagore Cancio Del Pino (Apirilak 24)

Ezkondutakoak

- Marciano Rascón Del Caño eta Arrate Arriola Larramendi (Apirilak 20)

Bestelakoak

- ❖ ESKUMUTURREKO BAT galdu nuen apirilaren 21ean.
☎ 74 28 38
- ❖ MUTILEN JAUNARTZEKO erropa daukat berri-berria. Txiki xamarra da tailaz. Lagatzeko prest nago.
☎ 74 10 44 (gauez deitu)
- ❖ BI BIZIKLETA dauzka emateko Caritasek.
☎ 74 15 09 / 74 12 57



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

3 OSTIRALA

22,15 RIFI RAFE ELKARRIZKETA

Gaia: "Elgoibarren gehiegi edaten da. Egiaote da?"

Partaideak: Herriko ikasle, guraso, tabernari, udal ordezkari,...

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Errotatxo

4 LARUNBATA

11,00 PREBENTZIO JAIA

Herriko kolektiboekin

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Errotatxo

12,00 TANBORRADA KO LEHEN ENTSAIUA

✓ Merkatu plazan

13,00 MANIFESTAZIOA

✓ Irteera Plaza Handitik

19,30-22,15 ZINEA

"Jumanji"

23,00 KALE ANTZERKIA

Taldea: Taun Taun

Antzezlana: Bi kate

✓ Madalako parkean

Antolatzailea: Errotatxo

5 IGANDEA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Jumanji"

6 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Jumanji"

7 ASTEARTEA

19,00 ERTAINETAKO GURASOEN EZTABAIDA

Zinea eta Osasuna programa

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Institutua eta

Drogomenpekotasunen

Prebentziorako Udal Zerbitzua.

22,00 ZINEA

"Jumanji"

10 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Nunca hables con extraños"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
4, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
5, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
6, astelehena:	Yudego	Zabaleta
7, asteartea:	Yudego	Zabaleta
8, asteazkena:	Yudego	Zabaleta
9, osteguna:	Yudego	Zabaleta
10, ostirala:	Ormazabal	Escala

OKINDEGIA:

5, igandea: IDARRAGA

ZineA

Jumanji

Zuzendaria: Joe

Jhnston

Antzezleak: Robin Williams, Adam Hann-Byrd, Bonnie Hunt.

Alanek Jumanji izeneko mahaiko joko baten tablero apaindu bat deskubritu zuen 12 urterekin. Bere lagun Sararekin tableroan jokoan hasi eta gauza arraroak gertatzen hasi ziren: Alanek dadoetan zenbaki bat atera zuenean tableroak irentsi egin zuen. 26 urte beranduago, Judyk eta Peter-ek Jumanji

tabloa topatzen dute bere izebak alokatutako etxeko ganbaran. Haurrak jokoan hasten dira eta zenbaki majikoa ateratzen dutenean Alan mundu errealaera itzuliko da. Jokoaren gora-beherek harrapatuta, Sara topatu eta joko amaitu beharko dute.



BANATZAILE
OFIZIALAK:



PEROBELL

cattelan
italia

EBANIS

GRASSOLER
DESIGN

herma

NANI
MARQUINA



CARLOS
JANE
CAMACHO

porada
interior design


racconti
GUGINE

STOKKE



Zur ta Lur

●●●●●ALTZARIAK●●●●●



SWISSFLEX®

Gurea
beste mundu
bat da.
ZATOZI!!



Olaso kalea 27 eta 54 A
ELGOIBAR 20870 - Tel./Faxa: 74 42 84



Arreiturre (12-16 urte)

E.S.O. / D.B.H.

B.U.P. / B.B.B.

R.E.M. / I.E.E.



Ezenarro (16-20
urte)

BATXILER BERRIAK

- Zientzietakoa
- Humanitatekoa
- Teknologikoa

LANBIDE HEZIKETA


ADMINISTRARITZA

- Erdi mailako komertzio zikloa
- Goi mailako Idazkari-
Administrarritza zikloa

AUTOMOZIOA

- Erdi mailako ibilgailuen
elektronika, mekanika eta
elektromekanika

Gazteen etorkizuna da GURE HELBURUA



Aurreinskripzioa

Maiatzaren 2tik 17ra

Dokumentazioa

- Bizilekuaren ziurtagiria
- Familia liburuaren fotokopia
- Errenta aitortpenaren
fotokopia (aukeran)

Bulego ordutegia

9etatik 1etara
Arreiturre 74 18 99
Ezenarro 74 44 80

Matrikula datak

Uztailaren 1etik 8ra
Irailaren 1etik 11ra